Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) 40. urteurrena ospatuko du urriaren 22an Bilbon, ordezkaritza instituzional zabalarekin.

- *Elixabete Etxanobe Bizkaiko Ahaldun Nagusia, Juan Mari Aburto Bilboko alkatea, Nerea Melgosa Sailburua eta Iñigo Urkullu Lehendakari ohia izango dira ospakizunean.*
- *«Gure Ahotsa, Gure Indarra» dokumentala estreinatuko da, EGKren 40 urteko ibilbidea eta euskal gazteriaren protagonismoa ezagutarazteko.*
- *Lehen aldiz, Izatea Sariak banatuko dira, Euskadiko gazteen ekarpen soziala, politikoa eta komunitarioa aitortzeko.*

Bilbo, 2026ko urriaren 19a. Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) bere 40. urteurrena ospatuko du urriaren 22an, 18:30ean, Bilboko Zabalguneko Merkatuan, *«Gure Ahotsa, Gure Indarra»* lelopean. Ekitaldiak erakunde publikoetako ordezkariak, gazte-elkarteak, gizarte-eragileak eta Kontseiluaren ibilbidearen parte izan diren hainbat belaunaldi bilduko ditu.

1986ko maiatzaren 27an sortu zenetik, Eusko Legebiltzarrak onartutako lege baten bidez eta gazte-elkarteen bultzadari esker, EGK erreferentziazko eragilea izan da Euskadiko gazteen eskubideen defentsan eta politika publikoetan duten parte-hartzea sustatzeko lanean. Gaur egun, 60 gazte-elkarte inguru biltzen ditu.

Ospakizunak ordezkaritza instituzional zabala izango du. Bertan izango dira, besteak beste, Elixabete Etxanobe Bizkaiko Ahaldun Nagusia, Juan Mari Aburto Bilboko Alkatea, Nerea Melgosa Eusko Jaurlaritzako Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko sailburua eta Iñigo Urkullu lehendakari ohia. Halaber, Euskadiko eta beste lurralde batzuetako gazte-kontseiluetako, alderdi politikoetako eta gazte-elkarteetako ordezkariek ere parte hartuko dute.

40. urteurrenaren bidez, EGK-k gazte-elkartegintzaren indarra eta euskal gazteriak Euskadiren eraikuntzan izan duen protagonismoa aldarrikatu nahi ditu, baita gazteen ahotsak erabaki publikoetan duen garrantzia nabarmendu ere.

Ekitaldiko une berezienetako bat *«Gure Ahotsa, Gure Indarra»* dokumentalaren estreinaldia izango da. Lanak EGKren lau hamarkadetako historia jasotzen du, presidente ohien, gazte-elkarteetako ordezkarien, Iñigo Urkullu Lehendakari ohiaren eta beste hainbat protagonistaren testigantzen bidez.

Horrez gain, Izatea Sariak banatuko dira lehen aldiz, Euskadiko gazteen konpromisoa, ekimena eta gizarteari egiten dioten ekarpena aitortzeko.

Ospakizuna lunch batekin eta DJ saio batekin amaituko da, belaunaldien eta gazte-erakundeen arteko harremanak sendotzeko.

Hedabideak ekitaldiaren berri ematera gonbidatuta daude. Elkarrizketak edo adierazpenak koordinatzeko, EGKren komunikazio arloarekin harremanetan jar daitezke.

Informazio gehiago:

komunika@egk.eus

688675932 (Mirene)

El Consejo de la Juventud de Euskadi (EGK) celebra su 40 aniversario en Bilbao con una amplia representación institucional

- *La Diputada General de Bizkaia, Elixabete Etxanobe; el alcalde de Bilbao, Juan Mari Aburto; la Consejera Nerea Melgosa; y el Lehendakari Iñigo Urkullu, entre las personalidades que asistirán al aniversario.*
- *EGK estrenará el documental «Gure Ahotsa, Gure Indarra», que recorre sus 40 años de historia a través de los testimonios de sus protagonistas.*
- *Se celebrará la primera edición de los Izatea Sariak, unos galardones para reconocer la contribución social, política y comunitaria de las personas jóvenes de Euskadi.*

Bilbao, 19 de octubre de 2026. El Consejo de la Juventud de Euskadi (EGK) celebrará el próximo jueves 22 de octubre, a las 18:30 horas, en el Mercado del Ensanche de Bilbao, su 40 aniversario bajo el lema *«Gure Ahotsa, Gure Indarra»* (Nuestra voz, nuestra fuerza). El acto reunirá a representantes institucionales, organizaciones juveniles, agentes sociales y distintas generaciones vinculadas a la trayectoria del Consejo.

Fundado el 27 de mayo de 1986 mediante una ley aprobada por el Parlamento Vasco y con el impulso del movimiento asociativo juvenil, EGK se ha consolidado como un espacio de representación, interlocución y defensa de los derechos de las personas jóvenes ante las instituciones públicas. Actualmente, agrupa a cerca de 60 organizaciones juveniles de Euskadi.

La celebración contará con una amplia representación institucional, entre la que destacan la Diputada General de Bizkaia, Elixabete Etxanobe; el alcalde de Bilbao, Juan Mari Aburto; la Consejera de Bienestar, Juventud y Reto Demográfico del Gobierno Vasco, Nerea Melgosa; y el Lehendakari Iñigo Urkullu. También asistirán representantes de partidos políticos, consejos de juventud y organizaciones juveniles de Euskadi y otros territorios.

Con este aniversario, EGK quiere reivindicar el papel del asociacionismo juvenil en la construcción de Euskadi y la importancia de garantizar la participación real de las personas jóvenes en las decisiones públicas que afectan a su presente y futuro.

Uno de los momentos centrales será el estreno de *«Gure Ahotsa, Gure Indarra»*, un documental que recupera los 40 años de historia del Consejo a través de testimonios de antiguas presidencias, representantes de organizaciones juveniles y personalidades vinculadas a su trayectoria, entre ellas el lehendakari Iñigo Urkullu.

El acto acogerá también la primera edición de los Izatea Sariak, una iniciativa para reconocer y visibilizar el compromiso, el talento y la contribución de las personas jóvenes a la sociedad vasca.

La celebración concluirá con un cóctel y una sesión musical, como espacio de encuentro entre las distintas generaciones y organizaciones del movimiento juvenil.

Los medios de comunicación están invitados a cubrir el acto. Para gestionar entrevistas, declaraciones o cualquier necesidad informativa, pueden ponerse en contacto con el área de Comunicación de EGK.

Más información:

komunika@egk.eus

688675932 (Mirene)